

KE NO FALTE

VENTE CONMIGO

Reggaea ulertzeko gure era goitik behera aldatu zen 1995ean. Aurrenekoz, jamaikar ukituak zituzten gaztelaniazko abestiak entzuten hasi ginen, eskenatokietan us-tekabeen sartu, eta merkatu musikala erabat irauli zuen banda bati esker.

KE NO FALTE mugari izan zen reggaea ulertzeko, sentitzeko orduan. Lau urtez, Santutxuko taldeak euren testuetan gizartegaiak jorratu zituen, eta milioika gazterekin bat egin zuen era berri, iraultzaile eta dibertigarrian. Eta, jakina, KE NO FALTE taldeak, beti, beti gogoratuko ditugun kanta utzi zizkigun.

Lugon 1999an bere azken kontzertua eskaini zuen arte, KE NO FALTE taldeak bi disko grabatu zituen, eta pozez kutsatu gintuen zuzeneko emanaldietara gindoazen guztiok, munduko edozein eskenatokitan jotzen zutela. Euren letrak hain ziren sakonak, ez dugula aurkitzen musikari eta ikusleen arteko horrenbesteko lotura beste korrante musikaletan. KE NO FALTE taldeak iraultza berdingabea ekarri zuen.

1999ko egun batean, baina, duela 12 urte baino gehiago, KE NO FALTE taldeko kideek atsedean hartzea erabaki zuten. Aro baten amaiera izan zen, iraultza musikal baten akabera. Dena den, KE NO FALTE taldearen espirituak gure artean jarraitzen zuten, euren hamaika abestiren bitartez. Hala ere, hori guztia ez zen nahikoa. Askok ginen eskenatokietan berriz ere ikusi nahi genituenak. Itxaronaldia luzea izan da, baina hemen dira berriz ere. Eta eurek ere gu faltan bota gaituzte.

KE NO FALTE taldeak hobekien egiten dakiena berriz ere egitea erabaki du: reggaea solidarioa, baita dibertigarria ere, gaztelaniaz. Taldeko bizkarrezurra osatzen zuten jatorrizko bi kideekin itzuli da: Jose (ahotsa eta gitarra) eta Axier (baxua). Ez daude bakarrik, Kasta (gitarra), Josu (teklatuak), Oskar (bateria), Ali eta Alazne (koruak) lagun hartu, eta musika egiteari ekin diote denek elkarrekin.

Disko berriarekin itzuli dira, "Vente Conmigo", eta urte asko igaro badira ere, gure bihotzak konkistatu zituen estilo berekoa da. Abesti berriak, letra freskoak. Eta dantzan jarriko gaituzte, talde honen aurreneko kanta entzuten hasi ginenean bezala. KE NO FALTE taldearen iragana eta etorkizuna, orainaldian gozatzeko prest.

Sara Gandara



Ke No Falte talde bilbotarrak urrezko lau urtea izan zuten 1995etik 1999ra. Askok saldu ziren argitaratutako bi diskoak eta hamaika zuzeneko jendearen txaloen artean. 12 urteko atsedendaldia izan ondoren, "Vente conmigo" disko berria kantu kutsakorrez jositako dakarkigute. Zergatik atsedendaldia? Zergatik itzulera?

Beti musikariak izan gara eta oraindik publikoaren bihotzera iristeko gogo berbera dugunez, hemen gaude. Denbora luzea eman ondoren itxaroten, norberak bere bidea egitea erabaki zuten bere garaian, orain berriro patuaren indarrak nahi izan du gu batzea. Musika berezkoa dugu, jaiotzetikoa. Zergatik itzuli garen? Inoiz ez ginelako joan...

Ke No Falte taldeak reggae doinuak beste erritmo bero eta dantzagarriekin nahastu ditu: samba, pop, reggamufin, rock, reggae fusion... Ke No Falte taldea beti reggae aberasten, ezta?

Noski, fusioa eta nahasketa oso gustukoa ditugu. Guretzat musika bizitza bera bezalakoa da, gero eta gehiago atondu eta aberastu norberaren bizitza, gero eta gehiago ikasten duzu. Bizipen horiek guztiak kontuan hartuta musika hobea sortzeko gai zara.

Ke No Falte taldearen "Vente conmigo" diskoak maitasunaren alde desberdinak jorratzen ditu eta jai. Kantuek senaren sakaneraino ailegatu behar dute. Ke No Falte ailegatu da? Galderak berak kezkatu zaitute?

Kantuak ez dira inoiz gauza gutxi. Abesti bat konposatu eta osatzen duzunean norberaren sentimendu guztiak hor barruan daudela esan daiteke, gauzen bidez zeure bizitza bera ikusteko beste era bat da, eta esan beharra dago sentimendu guztiak bihotzetik ateratzen direla. Eta horregatik ailegatzen dira bihotzeraino eta, gogor jotzen badute ere, inoiz ez dute minik emango. Ke No Falte taldeak jendearen bihotzeraino joan nahi du. Musikarekin lotuta dagoen galdera batek berak ez gaitu kikiltzen, musikariak garen heinean ahalmen osoa dugulako haiek erantzuteko. Erantzunak ikaratu zaitu?

ritxi aizpuru (2012ko otsailaren 22)